Txatbotak lagun?

Ana Galarragak, *Berria*n, solaskide birtualei buruzko artikulua idatzi du, txatbotei buruzkoa; lagungarri ala kaltegarri diren aztertuko dugu artikulua irakurrita.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Txatboten erabilerari buruz hausnartu.**
- **Irakurritakoaren ulermen-galderei erantzun.**
- **Irakurritakoari buruzko solasaldia egin.**
- **Puntuazioari erreparatu eta ondorioak atera.**
- **1. jarduerako testua zuzendu.**
- **Hausnarketa idatzi.**



vitaly-gariev-kLhLtXbWPCc-unsplash

Irakurri aurretik


BAKARKA

1. Solaskide birtualak

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Idatzi hausnarketa behean dituzun galderak erabilita.

Txatbota adimen artifizialean (AA) oinarritutako programa informatikoa da, solaskide birtuala (adibidez, ChatGPT, Gemini...), erabiltzaileekin idatzizko edo ahozko elkarrizketa simulatzen duena.

1. Inoiz erabili duzu txatbotik edo AArik (adimen artifiziala)?
2. Zertarako erabili duzu edo zertarako erabiliko zenuke? Zertarako ez?
3. Zure ustez, txatbotak eta AAk lagungarriak ala arriskutsuak dira? Zergatik?
4. Zure ustez, zer da garrantzitsua txatbotak edo eta AA erabiltzean?



Adimen artifizialak sortutako irudia

Hemen idatzitako testua aurrerago erabiliko duzu, beste jarduera bat egiteko.

BAKARKA

Irakurri bitartean

2. Zer dio Ana Galarragak?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri testua, eta erantzun hurrengo orrialdeko galderei.

berria



Txatbota ez da zure laguna

Ana Galarraga Aiestaran 2025EKO EKAINAREN 20A

Adimen artifizialean oinarritutako txatbotek, hau da, solaskide robotek, albiste zientifikoen jario etengabea sortzen dute. Erabiltzailearekin harreman naturala itxuratzeko ahalmen gero eta handiagoa dute, eta erabilera-eremuak ere ugaritzen ari dira.

Adibidez, tratamendu psikiatrikoa jasotzen duten pertsonetan, depresioa eta suizidatzeko asmoa detektatzeko erabil daitekeela iradoki dute ikerketa batean. Ikerketa horretan, GPT 3.5 txatbotak esaldi batzuen hasierak eman zizkien pazienteei: «Ni naiz...», «Nire familia da...», «Nire inguruko kideak dira...»; eta, erantzunetan oinarrituta, pazienteak bere buruaz beste egiteko arriskuan ote zeuden detektatu zuen sistemak.


Ikerketa aztertu duten beste aditu batzuen esanetan, tarte handia dago arriskua sumatzetik balio klinikoa izatera. Baina beste ikerketa askok kontrako eraginaz ohartarazten dute; hau da, buruko osasunerako oso arriskutsuak izan daitezkeela. Arrisku horren muturreko adibidea da iaz AEBn gertatutakoa: Character.AI konpainiako solaskide digitalarekin obsesionatuta, bere buruaz beste egin zuen 14 urteko mutil batek.

Kasu hori aipatu du berriki *Nature* aldizkariak, izenburu hau duen artikuluan: «Ulerkorra? Adiktiboa? Abusatzailea? Nola eragiten dioten buruko osasunari AA konpainiek». Izenburua bezain adierazgarriak dira tarteko titularrak: «Gezurrezko pertsonak, egiazko sentimenduak»; «Ona, txarra, ala biak?»; «Ikerketa kontrolatuak»; eta «Buruko osasuna eta arautzea». Txatbotekin izandako esperientziak biltzen ditu artikuluak, eta bukaeran ondorio hau ematen du: ikusi beharko litzateke zergatik batzuek neurriz kanpo erabiltzen dituzten txatbotak. Bakardadea edo ondoez psikikoa arintzeko ez badute beste aukerarik, buruko osasuna zaintzeko aukera hobeak eskaintzea izango litzateke gakoa.

Arriskua ez da mugatzen pertsona jakinetara. Txatbotak edozein limurtzeko gai dira. Esaterako, esperimentu batean frogatu dute GPT-4 txatak pertsonek baino gaitasun handiagoa duela solaskidearen iritzia aldarazteko. Bereziki GPTri erabiltzaileari buruzko informazioa ematen bazaio, hala nola generoa, adina, ikasketa-maila eta afiliazio politikoa. Agerikoa da horrek dakarren arriskua.

Jakina da hizkuntzak eragin handia duela manipulatzeko ahalmenean: euskaldun batzuen bihotzera iristeko, ez dago ezer eraginkorragorik, euskaraz egitea baino. Bada, Kataluniako Unibertsitate Irekiak frogatu berri duenez, GPTk izaera aldatzen du erabiltzailearen hizkuntzaren arabera.
Ikerketa horretan esan zuten GPT gizartekoia ere badela, emozionalki egonkorra eta arau sozialen jarraitzailea. Edozein solaskideri eskertuko genioke ezaugarri horiek izatea, baina ez da ahaztu behar txatbotak ez direla neutralak, ez objektiboak. Hortaz, lehendik ere espiritu kritikoa ondo zorroztuta izatea komeni bazen, orain, are gehiago.

(moldatua)



kinga-howard-5e0LIy0lDNw-unsplash

1. Zein ideia nagusi azpimarratzen da testuaren hasieran?
a) Txatbotek informazio faltsua soilik zabaltzen dutela.
b) Txatboten presentzia gero eta handiagoa dela hainbat esparrutan.
c) Txatbotak ikerketetarako eta medikuntzarako gero eta fidagarriagoak direla.

2. Zergatik jartzen dute zalantzan aditu batzuek txatboten balio klinikoa?
a) Emaitzak ez direlako behar bezain onak izan kasu guztietan.
b) Arriskua hautemateak ez duelako bermatzen erabilgarritasun terapeutikoa.
c) Txatbotak gai direlako edozein edozertaz konbentzitzeko.

3. Ikerketan, zer ondorio nagusi atera dute?
a) Buruko osasuna zaintzeko baliabide onek eskuragarriago egon behar dutela.
b) Txatbotak ondoeza eta bakardadea neurri batean baino ezin dituela arindu.
c) Arriskua ez dela txatbotak erabiltzea, horiek gauza guztietarako erabiltzea baino.

4. Zein da testuaren amaierako mezu edo gomendio nagusia?
a) Txatboten erabilera debekatu behar dela, manipulatzaileak direlako.
b) Haien laguna izateko, hobe dela norbere ama-hizkuntzaz ez erabiltzea.
c) Jarrera kritikoa indartu behar dela haien aurrean.

Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

TALDEAN

3. Solasaldia

Elkartu hiruko taldeetan, eta egin gaiari buruzko solasaldia. Horretarako, ondoko ideiak erabil ditzakezue.



Adimen artifizialak sortutako irudia

Erabiltzen duzue AA egunerokoan?

- Nik ez dut inoiz AA ezertarako erabili.... ez dakit nola dabilen ere!
- Nik lanerako baino ez dut erabiltzen, baina egia da...

- Bai, noski! Gero eta gehigo landu beharko dugu kritikotasuna; izan ere ...

Inoiz baino garrantsitsuagoa da kritiko izatea ikusi edo entzuten dugunarekin?

1. **AAk esandakoaz, sareetan edo Interneten irakurritakoaz (mes)fidatu.**
2. **Albiste faltsuak edo fake news-ak.**
3. **AAk ekar ditzakeen arriskuak eta abantailak.**
4. **AA arduraz erabiltzea.**
5. **Txatbotek eragina izango dute pertsonen arteko harremanetan.**
6. **Egunerokoan espiritu kritikoa izatea.**
7. **Etorkizunean, pertsonen eta AAren arteko harremana.**

Feedbacka irakasleak emango dizue.

Irakurri ondoren

TALDEAN

4. Erreparatu

Elkartu hiruko taldeetan; erreparatu letra lodiz dagoenari, eta erantzun galderei. Ondoren, atera ondorioak.



evgeni-tcherkasski-SqsbTuo5jP0-unsplash

1. Komak, puntu eta komak eta testu-antolatzaileak:

- Adimen artifizialean oinarritutako txatbotek**, hau da,** solaskide robotek, albiste zientifikoen jario etengabea sortzen dute.
- (...) ahalmen gero eta handiagoa dute**, eta** erabilera-eremuak ere ugaritzen ari dira.
- **Adibidez,** tratamendu psikiatrikoa jasotzen duten pertsonetan...
- Baina beste ikerketa askok kontrako eraginaz ohartarazten dute**; hau da,** buruko osasunerako oso arriskutsuak izan daitezkeela.
- Ikerketa horretan, GPT 3.5 txatbotak esaldi batzuen hasierak eman zizkien pazienteei: «Ni naiz...», «Nire familia da...», «Nire inguruko kideak dira...»**; eta,** erantzunetan oinarrituta...
- **Esaterako,** esperimentu batean frogatu dute...
- **Bada,** Kataluniako Unibertsitate Irekiak frogatu berri duenez...
- **Hortaz,** lehendik ere espiritu kritikoa ondo zorroztuta izatea...
- Edozein solaskideri eskertuko genioke ezaugarri horiek izatea**, baina** ez da ahaztu behar...

GALDERAK:

- Zer puntuazio-marka izan dezakete testu-antolatzaileek aurretik, eta zein atzetik?
- Alderatu 2. eta 5. buleteko adibideak. Zergatik uste duzue 5. buleteko adibidean ";" dagoela "eta"ren aurretik eta ez ","? Zer funtzio izan dezake?

2. Komak, puntu eta komak eta zerrendak:

- Ikerketa horretan, GPT 3.5 txatbotak esaldi batzuen hasierak eman zizkien pazienteei: **«Ni naiz...», «Nire familia da...», «Nire inguruko kideak dira...»; eta**, erantzunetan oinarrituta, pazienteak bere buruaz beste egiteko arriskuan ote zeuden detektatu zuen sistemak.
- Izenburua bezain adierazgarriak dira tarteko titularrak: **«Gezurrezko pertsonak, egiazko sentimenduak»; «Ona, txarra, ala biak?»; «Ikerketa kontrolatuak»; eta «Buruko osasuna eta arautzea».**

GALDERAK:

- Bi adibideetan zerrenda bat ikus dezakegu; zer alde dago bien artean, puntuazio-markei dagokienez? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?

3. Bi puntuak

- **Ikerketa horretan, GPT 3.5 txatbotak esaldi batzuen hasierak eman zizkien pazienteei:** «Ni naiz...», «Nire familia da...», «Nire inguruko kideak dira...»; eta, erantzunetan oinarrituta, pazienteak bere buruaz beste egiteko arriskuan ote zeuden detektatu zuen sistemak.
- **Jakina da hizkuntzak eragin handia duela manipulatzeko ahalmenean:** euskaldun batzuen bihotzera iristeko, ez dago ezer eraginkorragorik, euskaraz egitea baino.

GALDERAK:

- Uste duzue bi adibideetan ":" gauza bera egiteko erabili direla? Hau da, funtzio bera dute?
- Beraz, zertarako erabil daitezke ":"-ak?

ONDORIOAK:



1. Komak, puntu eta komak eta testu-antolatzaileak:

2. Komak, puntu eta komak eta zerrendak:

3. Bi puntuak

Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

BAKARKA

5. Bertsio hobetua

Berreskuratu 1. jardueran idatzitako testua. Orain, puntuazioari buruz ateratako ondorioak aintzat hartuta, berrikusi idatzitakoa eta, beharrezkoa bada, zuzendu. Jaso zerrenda batean zer zuzendu duzun, eta azaldu zergatik iruditu zaizun beharrezkoa zuzenketa egitea.



john-2FPjlAyMQTA-unsplash

Zer ikasi duzu puntuazioari buruz lehen ez zenekiena? Zer hartuko duzu kontuan hemendik aurrera?

Partekatu talde handian galderaren erantzuna. Testuan zuzendutakoari buruzko feedbacka irakasleak emango dizu.

BAKARKA

6. Txatbotak eta jarrera kritikoa

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri testuingurua, egin gidoia, eta idatzi hausnarketa euskaltegiko blogean. Saiatu puntuazioa zuzen erabiltzen (berrikusi testua bukaeran).

Txatbotak eta jarrera kritikoa



jonathan-cosens-photography-K-NCV0iQJZ8-unsplash

TESTUINGURUA

Euskaltegiko blogean, hilero, gai bati buruzko iritzi-testuak edo hausnarketak argitaratzen dira. Oraingoan, zuk idatzi duzu blogeko hausnarketa. **Zure helburua da ikasleen eta herritarren artean gogoeta sustatzea. Horretarako, idatzi 150 hitzeko hausnarketa, eta saiatu honako galdera honi erantzuten: zergatik da garrantzitsua jarrera kritikoa izatea adimen artifizialaren (AA) eta txatboten garaian?**

Hausnarketan ideia hauek gara ditzakezu:

- Noiz/zertarako erabili izan duzu AA edo txatbot bat?
- Fidatu zinen emandako erantzunaz? Fida gaitezke?
- Zertarako erabili behar da, eta zertarako ez? Zein dira marra gorriak?
- Inoiz oker zegoela konturatu zara?
- Nola jakin zer den egia eta zer ez?
- Zer abantaila eta zer arrisku ikusten dizkiozu AA erabiltzeari?
- Etorkizunean AA gehiago ala gutxiago erabiliko dugula uste duzu?

Feedbacka irakasleak emango dizu.

ERANTZUNAK

2. Zer dio Ana Galarragak?
1- b; 2- b; 3- a; 4- c

4. Erreparatu

GALDERAK:
- Zer puntuazio-marka izan dezakete testu-antolatzaileek aurretik eta zein atzetik?
- Alderatu 2. eta 5. buleteko adibideak. Zergatik uste duzue 5. buleteko adibidean ";" dagoela "eta"ren aurretik eta ez ","? Zer funtzio izan dezake?

Aurretik izan dezakete puntua, koma edo puntu eta koma; atzetik, koma.

5. buleteko adibidean **"eta"-**ren aurretik **";"** erabili da zerrendako elementuak bukatu direla adierazteko (hori da haren funtzioa), aurretik dagoena zerrenda osatzen duten elementuak dira; ondoren dagoena ez. Koma jarriz gero, zalantza sor dezake; beraz, zerrenda bukatu dela argi gera dadin erabili da **";"**.

GALDERAK:
- Bi adibideetan zerrenda bat ikus dezakegu; zer alde dago bien artean, puntuazio-markei dagokienez? Zergatik uste duzue gertatzen dela hori?

Ikus daitekeen desberdintasuna hauxe da: zerrendako elementuak banatzeko ez dela puntuazio-marka bera erabili, batean **","** erabili da eta bestean **";"**. Zergatik? Bigarren zerrendaren kasuan, zerrendako elementuen barnean dagoeneko badagoelako koma bat; beraz, elementuak eurak bereizteko koma erabili beharrean, puntu eta koma erabili da.

GALDERAK:
- Uste duzue bi adibideetan ":" gauza bera egiteko erabili direla? Hau da, funtzio bera dute?
- Beraz, zertarako erabil daitezke ":"-ak?

Ez, ez dira gauza bera egiteko erabili, ez dute funtzio bera. Lehen adibidean, bi puntuak erabili dira zerrenda bat aurkezteko. Bigarren adibidean, ostera, zehaztapen edo argibide gehiago emateko erabili dira.

Oharra: puntuazioari buruzko arau eta argibide gehiago Euskaltzaindiaren webgunean dituzue.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Jario etengabea. Fluxu etengabea.
Harreman naturala itxuratu. Pertsonen arteko harremanaren itxurak egin.
Iradoki dute ikerketa batean. Erabat baieztatu ez, baina bai aditzera eman.
Bere buruaz beste egin. Suizidatu.
Ondoez psikikoa. Maila psikologikoan, ondo ez sentitzea.
Edozein limurtzeko gai. Edozein liluratzeko, xarmatzeko gai.
Gizartekoia ere badela. Lagunkoia dela, harremanetarako ondo moldatzen dela.
Espiritu kritikoa. Jasotzen den informazioa egiaztatzeko, zalantzan jartzeko jarrera.